

**ERABAKIA, 2023ko OTSAILAREN 10ekoa, UPV/EHUko IRAKASLE-  
IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN  
BAITA UPV/EHUko IRAKASLEAK ORDEZKATZEKO BEHARRAK BETETZEKO  
IZENGAIEN LAN POLTSA OSAGARRI ETA 140, 323 ETA 325  
ZENBAKIDUN DOKTOREEN LAN POLTSA BERRIETAN SARTZEKO  
LEHIAKETA PUBLIKOAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO  
LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA**

---

**Lehenengoa.-** 2022ko irailaren 26ko Erabakiaren bidez, deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasleen ordezkapenak egiteko izangaiak lan-poltza berrietan sartzeko.

**Bigarrena.-** Aipatutako lehiaketan eskabideak aurkezteko epea 2022ko urriaren 17an amaitu zen. Hala ere, 2022ko urriaren 24ko Erabakiaren bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu zen, 2022ko urriaren 24 arte.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoa (otsailaren 3ko EHAA); Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 31ko Erabakia, UPV/EHUn irakasleen ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda egin eta kudeatzeko Araudia onartzen duena (2022ko maiatzaren 18ko EHAA); deialdia egiten duen 2022ko irailaren 26ko Erabakia; eta gainerako arau orokorrak eta horiekin bat datozenak.

**Bigarrena.-** Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2021eko urtarrilaren 28an gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko emandako erabakiak.

**Hirugarrena.-** Ordezkapenak egiteko izangaiak lan poltsetan sartzeko lehiaketa publikoaren deialdia egiten duen 2022ko irailaren 26ko Erabakiak ezartzen duenez, eskabideak onartzeko epea amaituta, Unibertsitateko errektoreak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko iragarki taula

elektronikoan eta Unibertsitatearen webgunean. Zerrenda hori interesdunei jakinaraziko zaie, eta 10 eguneko epea irekiko da, zerrenda hori webgunean argitaratzen den egunetik aurrera, akatsak zuzentzeko eta horren aurkako erreklamazioa aurkezteko.

Horregatik guztiagatik, eta eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Onartzea irakasleen ordezkapenak egiteko **lan poltsa osagarri eta 140, 323 eta 325 zenbakidun doktoreen lan poltsa** berrietan sartzeko lehiaketa publikoan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda. Lehiaketarako deialdia 2022ko irailaren 26ko Erabakiaren bidez egin zen.

**Bigarrena.-** Argitaratzea erabaki hau Irakasleen eta Ikertzaileen Ataleko iragarki taulan eta Unibertsitatearen webgunean argitaratzea.

**Hirugarrena.-** Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda horren aurka, eta akatsak zuzendu, **2023ko otsailaren 24ra arte** (egun hori barne).

Informatikako zerbitzuak egiaztatu dute zenbait arazo tekniko egon dela ordainketa pasabidean. Horren ondorioz eskari egile batzuek eragozpenak izan dituzte tasak ordaintzeko, arazo horiek ezin leporatu zaizkien arren beraiei.

Ondorioz, ezin izan dutenek tasen ordainketa ordainketa pasabidearen bidez egin arazo horiek direla medio eta behin-behineko zerrendan baztertuta geratu direnek, 2023ko otsailaren 24ra arteko epea (egun hori barne) izango dute ordainketa egin eta egiaztatzeko. Hau da: okerrak zuzentzeko idatziari tasen ordainagiria erantsi behar zaio.

Ordainketa diru sarrera edo transferentzia bidez egin beharko da, kontu korrante honetara, eta ondoren egiaztagiria erabaki honetan aipatzen diren bideen bidez aurkeztu beharko da.

Kutxabank

UPV/EHU Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza  
Irakasleen lehiaketako tasak.

K.k. zenbakia: ES73 2095 0292 94 3239002233

Dokumentazioa zuzentzeko eta erreklamazioa egiteko, ahal dela, UPV/EHUren egoitza elektronikoko prozeduren katalogoan aurreikusitako izapidearen bidez aurkeztuko da, "IIP Lan-poltsak 2022. Eskabideak zuzentzea eta behin-behineko zerrendei erreklamazioa egitea" ([IIP LAN-POLTSAK 2022. Eskabideak zuzentzea eta behin-behineko zerrendei erreklamazioa egitea](#)).

Era berean, deialdiaren oinarrietan aurreikusitakoaren arabera, UPV/EHUren erregistro elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz (urriaren 2ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).

Erregistro Elektronikoa erabiliz gero, «Jasotzailea» atalean, lehenik eta behin «Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetza» adierazi beharko da, eta, bigarrenik, «Deialdi eta Lehiaketen Unitatea» (U02000368). (UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakia, UPV/EHUrekiko harreman elektronikotan interesa duten pertsonen eta bertan lan egiten duten langileen identifikazio eta sinadura elektronikoi buruzko jarraibidea onartzen duena).

Era berean, sektore publikoko edozein erakundetako erregistro elektronikotan aurkeztu ahal izango da, eta, salbuespenezko kasuetan, UPV/EHUko erregistro gaietan laguntzeko bulegoetan.

Leioa, 2023ko otsailaren 10a

ERREKTOREA

Eskuordetuta (Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia, 2021/02/12ko EHAA)  
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30628936C

FEDERICO

RECART (R:

Q4818001B)

Firmado digitalmente  
por 30628936C  
FEDERICO RECART (R:  
Q4818001B)  
Fecha: 2023.02.10  
08:44:54 +01'00'

Sin.: Federico Recart Barañano

**ERABAKIA, 2022ko ABENDUAREN 16koa, UPV/EHUko IRAKASLE-  
IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN  
BAITA UPV/EHUko IRAKASLEAK ORDEZKATZEKO BEHARRAK BETETZEKO  
DOKTOREEN IZANGAIEN LAN POLTSA BERRIETAN SARTZEKO  
LEHIAKETA PUBLIKOAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO  
LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA (salbu 140, 323 eta 325  
zenbakidun lan-poltzak).**

---

**Lehenengoa.-** 2022ko irailaren 26ko Erabakiaren bidez, deialdi publikoa egin zen UPV/EHUko irakasleen ordezkapenak egiteko izangaiak lan-poltza berrietan sartzeko.

**Bigarrena.-** Aipatutako lehiaketan eskabideak aurkezteko epea 2022ko urriaren 17an amaitu zen. Hala ere, 2022ko urriaren 24ko Erabakiaren bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu zen, 2022ko urriaren 24 arte.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Kasu honetan honako hauek aplikatu behar dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoa (otsailaren 3ko EHAA); Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 31ko Erabakia, UPV/EHUko irakasleen ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda egin eta kudeatzeko Araudia onartzen duena (2022ko maiatzaren 18ko EHAA); deialdia egiten duen 2022ko irailaren 26ko Erabakia; eta gainerako arau orokorrak eta horiekin bat datozenak.

**Bigarrena.-** Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskumena du, eskuordetzaz, erabaki hau emateko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2021eko urtarrilaren 28an gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko emandako erabakiak.

**Hirugarrena.-** Ordezkapenak egiteko izangaiak lan poltsetan sartzeko lehiaketa publikoaren deialdia egiten duen 2022ko irailaren 26ko Erabakiak ezartzen duenez, eskabideak onartzeko epea amaituta, Unibertsitateko errektoreak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko iragarki taula

elektronikoan eta Unibertsitatearen webgunean. Zerrenda hori interesdunei jakinaraziko zaie, eta 10 eguneko epea irekiko da, zerrenda hori webgunean argitaratzen den egunetik aurrera, akatsak zuzentzeko eta horren aurkako erreklamazioa aurkezteko.

Horregatik guztiagatik, eta eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

### **ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Onartzea irakasleen ordezkapenak egiteko **DOKTOREEN** izangaien lan poltsa berrietan sartzeko lehiaketa publikoan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda (**salbu 140, 323 eta 325 zenbakidun lan-poltsak**). Lehiaketarako deialdia 2022ko irailaren 26ko Erabakiaren bidez egin zen.

**Bigarrena.-** Argitaratzea erabaki hau Irakasleen eta Ikertzaileen Ataleko iragarki taulan eta Unibertsitatearen webgunean argitaratzea.

**Hirugarrena.-** Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda horren aurka, eta akatsak zuzendu, **2022ko abenduaren 30ra arte** (egun hori barne).

Informatikako zerbitzuak egiaztatu dute zenbait arazo tekniko egon dela ordainketa pasabidean. Horren ondorioz eskari egile batzuek eragozpenak izan dituzte tasak ordaintzeko, arazo horiek ezin leporatu zaizkien arren beraiei.

Ondorioz, ezin izan dutenek tasen ordainketa ordainketa pasabidearen bidez egin arazo horiek direla medio eta behin-behineko zerrendan baztertuta geratu direnek, 2022ko abenduaren 30ra arteko epea (egun hori barne) izango dute ordainketa egin eta egiaztatzeko. Hau da: okerrak zuzentzeko idatziari tasen ordainagiria erantsi behar zaio.

Ordainketa diru sarrera edo transferentzia bidez egin beharko da, kontu korrante honetara, eta ondoren egiaztagiria erabaki honetan aipatzen diren bideen bidez aurkeztu beharko da.

Kutxabank

UPV/EHU Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza  
Irakasleen lehiaketako tasak.

K.k. zenbakia: ES73 2095 0292 94 3239002233

Dokumentazioa zuzentzeko eta erreklamazioa egiteko, ahal dela, UPV/EHUren egoitza elektronikoko prozeduren katalogoan aurreikusitako izapidearen bidez aurkeztuko da, "IIP Lan-poltsak 2022. Eskabideak zuzentzea eta behin-behineko zerrendei erreklamazioa egitea" ([IIP LAN-POLTSAK 2022. Eskabideak zuzentzea eta behin-behineko zerrendei erreklamazioa egitea](#)).

Era berean, deialdiaren oinarrietan aurreikusitakoaren arabera, UPV/EHUren erregistro elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz (urriaren 2ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).

Erregistro Elektronikoa erabiliz gero, «Jasotzailea» atalean, lehenik eta behin «Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetza» adierazi beharko da, eta, bigarrenik, «Deialdi eta Lehiaketan Unitatea» (U02000368). (UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakia, UPV/EHUrekiko harreman elektronikoen interesak duten pertsonen eta bertan lan egiten duten langileen identifikazio eta sinadura elektronikoen buruzko jarraibidea onartzen duena).

Era berean, sektore publikoko edozein erakundetako erregistro elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango da, eta, salbuespenetzko kasuetan, UPV/EHUko erregistro gaitan laguntzeko bulegoetan.

Leioa, 2022ko abenduaren 16a

30628936C FEDERICO  
RE CART (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por  
30628936C FEDERICO RE CART (R:  
Q4818001B)  
Fecha: 2022.12.16 13:57:28 +01'00'

ERREKTOREA

Eskuordetuta (Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia, 2021/02/12ko EHAA)  
Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Sin.: Federico Recart Barañano